



XXI. mendeko informazio gizartearen garapenaren kariaz, Hezkuntza Sistemak jokatu beharreko papera argitu gabe dago oraindik. Bestalde, teknologia berriek esker, hedabideek egundoko garrantzia hartu dute, aplikazio desberdinak agertzeagatik ezezik, gizatalde eta gizabanako askori orain arte pentsaezinezko aukerak ere eman dizkietelako. Honako artikuluetan, teknologia berriak, hedabideak eta hezkuntza eremuen elkarren arteko loturaz gogoeta zabala eskaintzen da, etorkizunean hiru alor horien arteko komunztatzea ageriagoa izanen delakoan.

Emankorra izan bekizu Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritza Sailak eta Didaktika eta Eskola Antolakuntza Sailak egindako artikulua sortu hau.

